

EUSKARAREN ERABILERA ELGOIBARKO KALEETAN (2004)

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak martxoaren bukaeran eta apirilaren hasieran egindako kale-neurketaren arabera, elgoibartarren **%41,4k hitz egiten du euskaraz** gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 6.392 elgoibartarren hizkuntz jokaera neurtu da.

Hauexek izan dira emaitzak:

	EUSKARAZ	%
6.392	2.652	41,48

ADINAREN ARABERA zera ageri da:

	GUZTIRA	HAURRAK	GAZTEAK	HELDUAK	ADINEKOAK
euskaraz %	% 41,4	% 63,6	% 41	% 30,7	% 40,8

Urtez urteko datuak konparatuz gero, adinaren arabera emaitzak beti antzerakoak izaten dira.

Elgoibartarren, inguruko herrietan bezala, **haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%63,6)**.

Helduak dira gutxien darabiltenak, hau da, helduen %30,7k bakarrik erabiltzen dute euskara.

GIROEN ARABERA zera ageri da:

GIROA	GAZTE GIROA	JOLASLEKUAK	EROSKETA GIROA	TXIKITEOA	IKASLEEN IRTEERA	FAMILIA GIROA
eusk %	35,2	46,8	37,1	34,2	56,2	40

Giro ezberdinei dagokienez, ikastetxetik irteteen eta jolasleketan erabiltzen da euskara gehien (urtero errepikatzen dena), gero familia giroan, ondoren, erosketa giroan eta gazte giroan, eta bukatzeko, txikiteoan. Aurten, txikiteo giroa izan da jaitsiera handiena izan duen giroa, familia giroan eta gazte giroan ere apur bat jaitsi egin da euskararen erabilera; pasealeku-jolasleku giroan eta erosketa giroan mantendu egin da erabilera eta ikastetxeetako irteeran igoera eman da. Jaitsiera hori logikotzat jo beharko genuke, 2002 urtean izan zen igoera oso handia izan zelako. Beraz, aurreikuspenen arabera, datuak pixkanaka-pixkanaka jaisten ari dira. Datozen urteotako kale neurketek itxaron beharko diegu, joera zein den zehazteko.

Belaunaldi bakoitzak esparru ezberdinetan **dituen gorabehera buruz**, esan behar da helduek, gazteek eta zaharrek gorabehera handiak azaltzen dituztela. Adibide gisa, ikastetxetik irteteen **gazteen** % 50ak eta jolasleketan % 46,8ak euskaraz egiten badu ere, gazte giroan eta familia giroan erabilera % 37ra jaisten da; **helduen kasuan**, ikastetxeetako irteeran %59ak euskaraz egiten badu ere, txikiteoan, erosketetan eta gazte giroan % 26-29k bakarrik hitz egiten du euskaraz. **Adinekoen kasuan**, berriz, pasealeku-jolasleketan eta ikastetxeetako irteeran, hau da, haurrak jasotzen dituztenean, %46-47k egitetik txikiteoan % 17,3 egitera pasatzen dira. **Haurrei dagokienez**, honako hau esan genezake: haurrek iaz, giro guztietan izan zuten erabilera portzentaia (%63,5) eta aurten izan dutena (%63,6) ia berdina direla. Horretaz gain, esan dezakegu, adin esparru honetan, 2001 urtetik (%63) 2002 urtera (%70,9) igoera handia izan zela, eta logikoki, erabilera datuak, berriz ere, 2001 urteko datuetara hurbildu direla, aurreko urteotan aurreikusitakoaren arabera. Hala ere, aurten, adin tarte gorabeheratsua gertatu zaigu haurrei dagokiona. Alegia, hiru giroetan (jolaslekuak, erosketa giroa eta gazte giroa) euskararen erabilera %75etik gorakoa izan da. Gainerako hiru giroetan, berriz, (ikastetxeetako irteera, familia giroa eta txikiteo giroa) %63tik beherakoa da. Benetan kezagarria da familia giroan egon den aldea.

Azken urteotan honako hau izan da **euskararen erabileraren bilakaera** urteka:

	1994	1995	1996	1997	1998	2000	2001	2002	2003	2004
HAURRAK	%47'3	%58'9	%52'9	%68'6	%68	%66'7	% 63	% 70,9	%63,5	%63,6
GAZTEAK	%30	%25'2	%29'5	%39'3	%39'1	%37'6	% 40	% 44,6	%43	%41
HELDUAK	%23'3	%23'4	%23'3	%26'7	%29'8	%27'6	% 25,7	% 32,9	%35,1	30,6
ADINEKOAK	%41'5	%39'4	%40'8	%35'1	%40'6	%33'2	% 33,2	% 40,8	%41,1	%40,8
GUZTIRA	31'8	31'9	31'7	37	40'3	38'3	37,4	45,5	%44,7	%41,4

Elgoibartarren euskararen **erabilera orokorrak** 1994 urtetik 1998 urtera arte gorantz egin zuen pixkanaka. 1998tik 2001era, berriz, beherakada txiki bat izan zuen (%40,3 → %37,4). Hala ere, 2001 urtetik 2002 urtera igoera nabarmena izan zuen, euskararen erabilerari zegokionean (%37,4 → %45,5). 2002ko emaitza izan da azken hamar urteetako hoberena.

2002 urtetik hona, eta aurreikusitakoaren arabera, erabilera orokorrari dagozkion portzentajeak jaisten joan dira (%45,5 → %44,7 → %41,4).

Neurketa honen emaitzak, nolabaiteko jaitsiera eman den arren, logikotzat, jo beharko ditugu, aldeztu aurretik egindako aurreikuspenei erantzuten baitiete.

Beraz, eta horrelako neurketek euskararen erabileraren bilakaera orokorra zein den jakiteko balio dutela kontuan izanik, eta azken hamar urte hauetan izandako bilakaerari erreparatu, euskararen erabilerak Elgoibarren % 31,8tik %41,4rako igoera izan duela azpimarratuko dugu.

Elgoibarren, 2004ko maiatzaren 20an
UDALEKO EUSKARA BATZORDEA